

BALEIKE



#M26



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

349€

A+

45zm zabalera

BALAY
3VN303BA



A+

INOX


3 bandeja

45zm zabalera

WHIRLPOOL
WSFO 3023 PFX

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

439€



419€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

A+

45zm zabalera

AEG
FFB 51400 ZW



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

INOX

3 bandeja

A++

BOSCH
SMS 46 MIO8EU

549€

MAIATZA
Ontzi
garbigailuen
hilabetea



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

3 bandeja

INOX

A+++

549€

WHIRLPOOL
WFO 3033 DLX

Balay,
Bosch eta
Whirlpool marketan
5 URTEKO
GARANTIA
DOHAIN



BALEIKE
%5
BAZKIDEA

A++

3 bandeja

TXURIA
399€

INOX
449€

BALAY
3VS 572 IP/BP



449€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

A++

3 bandeja

WHIRLPOOL
WFC 3C24 PFX



TIEN 21

www.endañetazumaia.com



BALEIKE 287

2019-MAIATZA

AZALEKO DISEINUAREN EGILEA:
ANE AZKUE

Aurkibidea

- 4 **Hitz tantak** Izaskun Urbietta Esnal
Alaitz Aizpurua eta Jon Imaz
- 6 **Izpiak eta hizkiak** Juan Ramon
Llavori Romatet
Cu Xa, Isiltasunetik Birsortutako Lorea
- 8 **Hainbat aburu** Andoni Etxaniz
Irabazteko ilusioz
- 9 **Errematea** Sara Ibarburen
Onartuen zerrenda
- 11 **Hauteskundeak**
- 32 **Bazkide kluba**
- 34 **Plazan bazan**
- 37 **Heziketa** Izar Arregi

- Ikasi heriotzarekin bizitzen*
- 39 **Osasuna** Rosa Azkue
Depresioa I
- 42 **Kultura** Juan Luis Romatet
Gara: garenak garelako
- 43 **Agenda**
- 44 **Literatura** Asier Arakistain
Kresal usaina bazterretan
- 45 **Nire txanda** Iker Gonzalez
Cobeaga
Musikaren lan isila...
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Hilezkorak ere badoaz

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbietta

Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua

publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

Alaitz Aizpurua eta Jon Imaz

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Umetan hasi ziren Beti Gazte dantza taldean Alaitz eta Jon, eta taldearen azken urteetan irakasle ibili ziren. Maiatza Dantzan egitasmoaren barruan, Beti Gazte eguna ospatuko dute hilaren 18an.

Noiz hasi zineten dantzan?

Alaitz: Sei urterekin, Ikastolan hasi eta urte hartan izena eman nuen.

Jon: Mutilak 8-9 urterekin hasten ginen, eta nire kasuan, kuadrillan apuntatu ginen.

Mutilak eta neskak bananduta entseiatzen zenuten.

Zergatik?

J.: Orduan oso sakratua zen hori.

A.: Mutilen eta nesken dantzak zeuden.

Emanaldiren bat bagenuen, egiten genuen pare bat entsegu batera; bestela, ez.

Jon: Horietara txistulariak ere etortzen ziren; bestela, irakasleak berak abesten zituen doinuak.

Zer dantza ikasten ziren?

A.: Aurrena, fandangoa ikasten genuen; gero, arin-arina; ondoren, arrantzale, aurrekoa, makil txiki, uztai dantza, zinta dantza, sagar dantza eta zozo dantza.

J.: Gure kasuan, txotxongilo edo txankarregoa, banakoa, aurrekoa, ezpata dantza... Mutilek, adibidez, sekula ez genuen ikasten fandangoa eta arin-arina. Zumaian ez zegoen ohitura.

Zer arropa erabiltzen zenuten?

J.: Mutilek Bizkaiko arropa deitzen zena erabiltzen genuen: zuriz eta gerriko gorria eta txapela. Urte batean, Gipuzkoako arropa egingo zela esan eta tela erosi genuen. Etxeetan banatu eta bakoitzak egiten zuen. Txaleko gorria, alkandora zuria, galtza beltzak, harizko galtzerdiak, txapel beltza, koloretako gerrikoa eta abarkak izan zen traje berria.

A.: Gu hilanderaz eta arrantzalez janzen ginen.

Alardeetara joateko ohitura zegoen. Nora?

A.: Herri askotara joaten ginen: Ondarroa, Mutriku, Bergara, Arrasate...

J.: Normalean, gainera, alardea antolatzen zuen herriak autobusa jartzen zien gonbidatutako herriei. Zumaia zortzi herri baino gehiago etortzen ziren.

Nola gogoratzen dituzue alarde haiek?

A.: Niretzat zoragarriak izaten ziren. Goizetan kalejira egiten genuen, eta hamaiketako ere ematen ziguten. Talde bakoitza herriko txoko batera bidaltzen zuten eta arratsaldean denok elkartzen ginen.

J.: Bazkaltzera, berriz, alardea egiten zen herriko dantza taldeko norbaiten etxera joaten ginen.

Ederki pasatzen genuen. Maiatzean hasi eta iraila arte ospatzen ziren alardeak, normalean, herriko festetan. Zumaian sanpedroetako igandean egiten genuen.

Geroago, gaztetxo zinetela, belaunaldi berriei erakusten hasi zineten.

A.: Dantzari izatetik erakusten hasiera hasi ginen jarraian. Zerbait naturala izan zen. Ongi pasatzen nuen, baina, egia esan, dantza egitea nahiago nuen.

J.: Urte dezente dantzan ari zen pertsonak hartzen zuten erakusteko ardura. Nik, adibidez, anaiari erakutsi nion eta Alaitzek ahizpa gazteagoari.

1999an amaitu zen Beti Gazte.

A.: Itzaltzen joan zen kontua. Mutilak gero eta gutxiago ziren, alardeetara joateko ezin osatu ibiltzen ginen... Nik, adibidez, ikasketak zirela eta, astea Zumaia kanpo pasatzen nuen.

J.: 1998ko denboraldia bukatu genuen eta berria hasterakoan ikusi genuen ezinean ibiliko ginela. Beraz, 1999an erabaki genuen amaitzea.

Zer egin zenuten materialarekin?

J.: Arropa batzuk gurasoen etxean jaso genituen. Beti Gazteko bandera ere guk jaso genuen, eta gero Inaxiori eman genion. Bera izan zen sortzaileetako bat.

A.: Taldea amaitu zenean, Herri Eskolako guraso elkarteak euskal dantzak erakusteko talde bat sortu zuen eta material batzuk bertan ibili ziren. Jonek talde horretan ere jarraitu zuen erakusten.

Alardeez eta ohiko ekitaldiez gain, ezkontzetan, esaterako, dantza egiten zenuten.

J.: Niri askotan tokatu zait dantza egitea: lagunenean eta familiakoen ezkontzetan, baita ezezagunenetan ere. Dantza taldearentzat diru iturria zen. Inaugurazioetan ere parte hartu izan genuen: Zumaian Gernikako arbola landatu zenean, adibidez. ■■■



Cu Xa, Isiltasunetik Birsortutako Lorea

ARGAZKIA ETA TESTUA: JUAN RAMON LLAVORI ROMATET

Putzuak badu ura, Ez dut zure aurpegia ikusten

Cu Xa andreak senarra eta semea galdu zituen estatubatuarren aurkako guduan Quàng Tri probintziako Thach Hân ibaian. Vietnam erdialdean dago ibai hori.

Vietnameko usadioa da seme bat ezkontzen denean hark familiari emakume bat ekartzea etorkizunean etxeko adinekoak zaintzeko ardura hartzeko. Orain, ez du inor ondoan eta bakarrik bizi da Lê Mât herriko auzo-etxean. Hanói hiriko Long Bien barrutian dago herria.

Adinekoak ohoratu eta errespetatu egiten dituzten Vietnamen...

Inola ere ez nuen pentsatu zer gertatuko zen, Xa-Cu andrearen erreakzioa bere bizimodua kontatu zigunean Hà Trăn nire gidariari eta bioi. Lore bat besterik ez zuen apaingarri, ezkerreko belarrian. Naturak emandako bitxi bat, Dai edo Hoa Xu izenekoa; *Plumeria Rubra*. Dai arbolaren lorea da, izugarri ederra, baina pozoitsua. Agian beste albo-kalte bat, kasu honetan Naturarena berarena.

Inoiz ez zait hain mingarria gertatu bizitza oso bat argazki batean kasu honetan sekuentzia batean irudikatzea. Bakardadez, minez eta izuz jositako bizitza baten lekuko. Hala ere, haren begiradan irmotasuna, purutasuna eta duintasuna nahasten ziren. Hutsunerik gabeko istorio bat transmititu zigun. Zintzotasunez betetakoa.

Gaur egun ere milaka biktima izaten dira Vietnamen, urtean hiruzpalau mila: albo-kalteen ondorioz.

“O, lotoko bitxia” ■■■

Datu teknikoak: Olympus E-M1; 40.150mm; f10; 1/1600seg.; ISO: 400.







Irabazteko ilusioz

Paper zuri bat, mila arrazoi, eta nondik heldu asmatu ezinik. Maiatzak bat, mila arrazoi eta ni asmatu ezinik. Liburutegiko leihotik begira nago, inspirazioa noiz etorriko zain.

Bidegorritik bi neskato patinetean, nire alabak, atzetik amama eta osaba doaz, halako batean heldulekua...

Azken boladan behin eta berriz esaten digute gure seme-alabak gu baino okerrago biziko direla, lehen aldia izango dela hori gertatuko dena. Esaten digute, baita ere, gure pentsioak ez daudela ziurtaturik eta badaezpada ere plan pribaturen bat begirutzen

hasteko. Esaten digute gure gurasoen borrokak ekarritako eskubideak ez dituztela edukiko gure seme-alabek, baina nik ez diet sinesten.

Nik elkartasunaren indarrean sinisten dut, elkaturik gauza ederrak egiteko gai garelako maite dugun hori babesteko, indartzeko, eraikitzekeo...

**BORROKATZEAN
SINESTEN DUGU GURE
ONDORENGOEI MUNDU
HOBEA ESKAINI AHAL
DIEZAIKEGULA**

Astelehenero dugu elkartasunaren indarra gure kaleetan, elkartu dira pentsiodunak borroka duin baten inguruan eta argi utzi dute agenda politikoa baldintzatzeko gai direla.

Borroka feministak ere hartu du indarra, onargarriak ez diren egoerak ez ditugulako onartuko, ez ezetz delako.

Ederra da elkartasunaren indarra borrokan ari direnen aurpegietan ikustea. Harro eta pozik, mundu hobea eraikitzen. Gure erantzuteko modua aldatzen denean, elkaturik borrokatzekeo prest gaudenean, utopiak egia bihurtzen hasten dira.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Onartuen zerrenda

Ez zuen, ez, zeresan gutxi eman joan den hilean hauteskundeen gaiak. Santelmoetan izango zirela jakin zen egunetik asaldatuta zegoen herria. Kalean solasaldietarako gai nagusia zen eta denok irrikan geunden –neurri batean eta ez egokitzeotan– hauteskunde mahaietan egun berezi hori igarotzea nori egokitu zitzaion zioen zerrenda kaleratzeko. Onartuen zerrenda argitaratu zen egunean laster hasi ziren izenak kuadrillaz kuadrilla zabaltzen eta libratu zirenak kezka bat gutxiago izateagatik gaia umorez hartzen.

Baina hauteskundeetako zerrendaz gain, aurreko apirilean onartuen beste zerrenda batzuk ere izan ziren. Adibidez, hain esanguratsua den Korrikak onartutako kilometro guztiek Euskal Herri osoa euskararen aldeko festa giroan murgildu zuten. Eta zer hobeto, Zumaia-ik igarotzerakoan santelmoetarako motorrak berotzen hasteko Korrika baino? Ikus dezakegunez, zerrenda guztiak ez dira txarrak. Zalantzarik gabe emozioz beteriko hilabetea izan da apirila Zumaian, eta orain festetako ajeak igarota, maiatzean berriro ere beste hauteskunde batzuetarako zerrenda kaleratuko da. Oraingo honetan, santelmoetatik kanpo, behintzat. ■

Maiatzaren 1ak, langilearen nazioarteko egunak, elkartzeko beste aukera bat ematen digu, pentsiodunak, langile prekarioak, feministak, gazteak, elkarturik gure beharrak mahai gainean jarri, eta ondorengoei ametsak egia nola bihurtzen diren erakutsi behar diegu, borrokatzen erakutsi behar diegu.

Imajina dezagun segundo batez bada ere, azken martxoaren 8ak ez direla gertatu, feminista ote garen galdetzen digutenean, ez dakigula zer erantzun, astelehen goizetan pentsiodunak Marca irakurritz pasatzen dutela goiza, imajina

dezagun borrokatzeko gaitasuna galdu dugula; zer tristea, ezta?

Borrokatzen garenean sentitzen gara bizirik, borrokatzen garenean sinesten dugu gure ondorengoei mundu hobea eskaini ahal diezaiekegula, nahiz eta sinestarazi nahi diguten borrokatzeak ez duela zentzurik. Ez iezaezu sinetsi. Jarraitu borrokatzen, lotu borrokara, sinetsi matxismoa gaindituko dugula, sinetsi mundu justuagoa posiblea dela, eta borrokatzen garenean, borroka gaitezen irribarre eder bat eskainiz, irabaztera goaz eta!! ■

ETA LAU URTE
MADARIKATZEKO

@garbineubeda

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52

SAYALERO



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoek senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama Taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ardantzabide


ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31

f



OKINDEGIA Arkipe

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

GOI-EDER



Arruti

ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943-54 34 06
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



ATARI

TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bos.com

Tel. 943-86 14 85

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



bai bidea

Taberna · Jatetxea
Bar · Restaurante

943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com

Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

f t i tripadvisor



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi

albaitaritza

Basodi, 7, behea • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodivivinet.com
www.basodivivinet.com

Golez: 11-13 / Arratsalaz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta tartaratuaren bitartean
Larrialdietarako: 605 72 87 07 Etaz ebako zerbitzua



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00



Nork jasoko du uztia?

Datorren legealdirako alkatea aukeratuko dugu maiatzaren 26ko hauteskundeetan. Egun horretan erabakiko da nork izango duen eskutan herriko agintea sinbolizatzen duen uztia 2019-2023 agintaldian.


7.856 lagunek osatzen dute hauteskunde hauetarako errolda. Kopuru horretan sartzen dira atzerrian bizi diren zumaierak (161), eta Zumaian bizi diren atzerriarrak (31).

17 lagunek osatuko den udal korporazio berria erabakitzeaz gain, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako batzarkideak eta Europako Parlamenturako diputatuak ere aukeratuko dira egun horretan.

Udal hauteskundeei dagokienez, lau alderdi aurkeztu dira Zumaian: EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Uzin. Horien barruan daude hautagaiak: amaitzearen legealdian Zumaia alkate izan den Oier Korta da EAJ-PNVren alkategaia; 2011-2015 legealdian zinegotzi izan zen Iñaki Ostolaza da EH Bilduren zerrendaburua;

azken lau urte hauetan alderdi sozialistako zinegotzi izan den Arritxu Maraño da PSE-EEren alkategaia; eta hauteskunde hauetako berrikuntza nagusia Uzin zerrenda da, Patricia Camacho baita zerrendaburua. Lau alkategaiak elkarriketatu ditugu Baleikeren maiatzeko zenbakian.

Horrez gain, herritar batzuei galdera zehatz hau egin diogu: zer eskatzen diozu alkate berriari? Hemen dituzue erantzunak.



"Ardatzak legealdi honetatik markatuta ditugu, eta horiekin jarraituko dugu lanean"

OIER KORTA EAJ-PNVREN ALKATEGAIA

Oier Korta Esnal da EAJ-PNVren alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako. 46 urteko zumaiarra, alkate izan da legealdi honetan, eta kargua berrestea du helburu.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Alkate izan zara legealdi honetan. Zer balorazio egiten duzu? Balorazioa positiboa da, jakinda, gainera, geldialdi batetik gentozela. 51 kontratu ireki jarri ditugu abian agintaldi honetan. Aurreko legealdian 27 izan ziren. Sartu ginenean Udalaren egoera ekonomikoak kezkatzen gintuen. Kudeaketa zorrotza egitea zen gure aldarrietako bat, eta, alde horretatik, egoerari buelta eman diogu. Gizarte zerbitzuei buelta handi bat eman diegu; saila bera indartu dugu eta programa berriak abian jarri dira. Hezkuntzan ikastetxe berriak egiteko eta Sagarbideko pista estaltzeko konpromisoa sinatu dugu. Udalak berak Aita Mari ikastetxeko aterpe eta jolasleku berriak egingo ditu. Enplegu eta ekonomia sustapenean pauso handia eman da. Legealdi hasieran eskualdeko bost udalerriok konpromisoa hartu genuen Udal Elkartearen bitartez programa jakin batzuk martxan jartzeko, eta horiek fruituak eman dituzte. Bestetik, inguru atsegin eta irisgarria izateko pausoak ere eman dira.

Zure ustez, zein Zumaiak dituen erronka handienak etorkizun hurbilean?

Amaitzear den legealdi honetan Arau Ordezkatzaile berriak egiteko plana jarriko da abian. Herria nola hazi proiektatuko duen dokumentua izango da. Bestalde, azpimarratu nahi dut Aldundiak San Juan Egoitzan birgaitze lanak egingo dituela: plaza gehiago eta espazio berriak sortuko dira.

Zein dira EAJ-PNVren ardatz nagusiak hauteskundeei begira?

Ardatzak legealdi honetatik markatuta ditugu, eta horiekin jarraituko dugu lanean. Gizarte zerbitzuek lanketa handia eskatuko dute. Hezkuntzan iruditzen zaigu lan handia egin dela, eta gaur egiten diren lanek etorkizunera begira garrantzia izango dute. Enplegua izango da beste ardatz bat, eta inguru atsegin eta irisgarriaren aldeko lanean jarraituko dugu, bizi kalitate ona eskainiko duen herria izateko.

Gai konkretuetara jota, etxebizitzaren gaia dugu. Etxebizitza gutxi dago herrian, oso garestiak, eta alokairuaren prezioek ere gora egin dute.

Legealdi honetan Torreagaberri hitzarmena sinatu dugu. Horren arabera, 50 etxebizitza babestu eta beste 50 tasatu egingo dira. Bestetik,





**"SARTZEAN UDALAREN EGOERA
EKONOMIKOAK KEZKATZEN GINTUEN;
EGOERARI BUELTA EMAN DIOGU"**

**"KIROL EKIPAMENDU BERRI ETA
HANDIAGOETAN LAN EGIN BEHAR
DUGU ONGIZATEA BERMATZEKO"**

**"PROGRAMAN GERNIKA PARKEAN
LURRAZPIKO APARKALEKUA EGITEA
JASOTZEN DUGU"**

alokairu beka jarri dugu martxan gazteei zuzenduta. Programa honek duen berezitasuna da etxebizitzak partekatzea sustatzen duela. Alokairuaren % 75 estaltzera hel daiteke. Erabilera komertziala duten lekuetako etxabeetan etxebizitzak ateratzeko lanketa egitearen beharra ere ikusten dugu. Etxebizitza hutsei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak lege berri bat onartu du, udal guztietan aplikatu beharko da, eta etxebizitza huts horiei tasa berri bat ezarriko zaie.

Kulturara salto eginda, hor dugu Komentua. Aspaldi pasa zen Udalaren eskuetara, baina oraindik erabaki gabe dago zer egin.

Esan nahiko nuke bi eraikin pasa direla udal patrimonioaren eskuetara legealdi honetan: estazio zaharra eta Erkibe etxea. Hausnarketa sakona egin behar dugu, herriak zer behar dituen eta zer lokal ditugun jakiteko. Komentuari dagokionez, jakitun izan behar dugu zer dimentsio dituen, eta edozer egitasmo mahai gainean jarri aurretik, jakin behar dugu babestua dagoela, eta edozer gauza egiten dela ere diru kopuru handia beharko dela.

Gero eta gizarte zaharragoa dugu, eta gero eta behar handiagoak ditu. Bestalde, pobreziatik atera ezin duen jendea ere badago.

Zahartzaroari dagokionez, programa asko jarri ditugu martxan aurreko legealdian, eta programa horiei jarraipena ematea da helburua. Adinekoen behatokiak txosten oso interesgarria prestatu du

Laburrean

- **Izen-abizenak:** Oier Korta Esnal. Zumaia, 1972.
- **Leku bat munduan:** Tibet eta Zeelanda Berria ezagutzeko gogoia dut.
- **Janari bat, edari bat:** Arrautza frijituak eta sagardoa.
- **Liburu edo idazle bat:** Eduardo Punset.
- **Pelikula bat:** *Billy Elliot*.
- **Musikari bat:** Janis Joplin.
- **Politikan noiz arte:** Datorren legealdira arte.
- **Hitz gutxitan, beste alkategaiak nola definituko zenituzke:** Iñaki eta Patricia ez ditut ezagutzen, bistaz bakarrik. Arritxu Maraño: politikari petoa, borrokalaria.

horren inguruan. Pobreziaren gaia aipatzen duzunez, langabezia tasak behera egin duen heinean, beste adierazle batzuek (Janari Bankoa, laguntzak jasotzen dituzten onuradunen kopurua, etab.) ere beheranzko joera hartu dute. Garbi dago langabezi tasak behera egin duela, eta pozik gaude. Baina ezin gara geratu, geratzeak atzera egitea dakarrelako.

Kirol ekipamenduen inguruko proposamenak aurkeztu zenituzten martxoan, epe luzera begira. Epe laburrera begira, ba al duzue proposamenik?

Udalean sartu ginen unetik kiroldegirako inbertsio partida igo dugu. Lehen 15.000 euroko partida zegoen, eta 2018an 200.000 euro gastatu ziren hobekuntzetan. Asko erabiltzen da, eta ikusita gizartea nola ari den aldatzen, erabiltzaileen kopuruak gora egingo du zalantzarik gabe. Legealdi honetan bi azterketa enkargatu ditugu. Iruditzen zaigu inbertsioekin jarraitu behar dugula, baina kirol ekipamendu

berri eta handiagoetan lan egin behar dugu zumaia arron ongizatea bermatzeko.

Aste Santu honetan ere bisitari andana izan dugu herrian, eta turismoak eztabaidarako gai izaten jarraitzen du.

Turismo Plana martxan jarri dugu legealdi honetan. Plan hori egin eta gero ez dakit halako eztabaidarik dagoen. Guretzat turismoa aukera bat da, iruditzen zaigulako merkataritza sustatzeko erreminta dela. Bestetik, turismoa bera guretzat, herri bezala, baliagarria da gure historia, gure kultura ezagutzera emateko. Legealdi honetan *Enigma bizia* programa jarri dugu abian, euskara ardatz duena. Turismoaren ez bai horretan aparkalekuen erregulazioa jarri dugu martxan legealdi honetan. Lanketa handia izan da, asko kostatu da, eta iruditzen zait egin beharreko lana zela.

Langabeziak behera egin du, baina azkenaldian enpresa batzuek ateak itxi dituzte. Ekonomiaren aldetik zer proposatzen duzue?

Udalak berak ekonomia eta enplegu sustapenean baditu eskumenak, baina azpimarratu nahi nuke gai honi eskualde moduan heldu beharko geniokeela. Langabezi datu horietan emakume eta gizonezkoen artean bi puntu portzentualen diferentzia dago. Fokua jarri behar dugu hor hurrengo legealdian.

Komertzioari dagokionez, denda dezente itxi dira azkenaldian.

Hauteskunde programan herriko merkataritza eta bizitza bultzatzen lagunduko duen proiektu bat daramagu. Erkibe aurreko orubea, Ignacio Zuloaga plaza eta Gurrutxaga plaza artean espazio handi bat sortu nahi dugu. Espazio horretarako aterpe polibalente bat planteatzen dugu. Espazio hori baliagarria izan daiteke ostegunetako merkaturata bertara eramateko. Lehen sektorea sustatzeko espazio polit bat ere sor dezakegu, produktu lokalari balioa emateko.

Proposamen zehatzak ere jasotzen ditugu hauteskunde programan. Bi haurreskolak bateratzea eta Sagarbidera eramatea planteatzen dugu. Gernika parkean lurrazpiko aparkalekua egitea jasotzen dugu. Portu Saileko eremua da, eta elkarriketak zabalik daude. 300 aparkaleku joango lirateke bi solairutan banatuta. Zumaia eta Oikia bidegorriz lotzeko konpromisoa ere jasotzen dugu.

EAJ-PNV

Titularrak

- 1. Oier Korta Esnal.
- 2. Maria Cruz Alvarez Aparicio.
- 3. Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta.
- 4. Cristina Vicente Itziar.
- 5. Gotzon Enbil Unanue.
- 6. Iker Mardaras Arrieta.
- 7. Ainhoa Illarramendi Azkue.
- 8. Arantzazu Florez Tapia.
- 9. Unai Mancisidor Andonegi.
- 10. Ane Arregi Urbietia.
- 11. Lide Amilibia Bergaretxe.
- 12. Mikel Olaizola Elosua.
- 13. Miren Edurne Egaña Manterola.
- 14. Xabier Urrutia Elorza.
- 15. Jose Miguel Antia Albizu.
- 16. Maria Aranzazu Arrizabalaga Olaizola.
- 17. Isidro Fernandez Etxabe.

Ordezkoak

- 1. Juan Carlos Zendoia Aizpurua.
- 2. Eusebio Larrañaga Sudupe.
- 3. Maria Jesus Antia Albizu.

"Gure erronka handiena da Zumaia izatea herri bat bizitzeko modukoa"

IÑAKI OSTOLAZA EH BILDUREN ALKATEGAIA

2011-2015 legealdian zinegotzi izan zen Zumaia Udalean Iñaki Ostolaza, baina alkate izateko asmoz aurkeztu da maiatzeko udal hauteskundeetako hautagaitzan. Zumaia bidegurutze batean dagoela uste du, eta bizitzeko moduko herri baten norabidean ipintzea du helburu..

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Nola baloratzen duzu aurreko legealdia? Udal gobernu bat baloratzeko orduan, kontuan izan behar da zer egin duen, baita zer jarrera izan duen ere. Udal gobernuak oposizioarekiko izan duen jarrerari dagokionez, oso legealdi traketsa eta etsigarria iruditu zait.

Hasieran batez ere, oposizioarekiko minduta egon balira bezala; oposizioaren jarrera, aldiz, beti izan da eraikitzailea eta parte hartzekoa.

Askok harritu ninduen legealdiaren zati handi bat aurreko udal gobernuaren inguruan hitz egiten pasatzeak. Gainera, udal gobernuak osatzen duten zinegotzietatik bat bera ere ez zen izan aurreko legealdian.

Jarrera, egin dutena eta etorkizunerako duten planteamendua ikusita, huts egindako legealdia iruditzen zait.

Zer erronka ditu Zumaia datozen urteetan?

Bidegurutze batean gaude. Zumaia herri industrial izan da, eta turismoa ere egon da; baina eragin gehiegi izan ez duena. Orain, azken legealdi honetan gehien bat, *Juego de Tronos* telesailaren grabaketak direla eta, *Ocho apellidos vascos*, flysch... Boom bat dago, eta eragina dauka.

Horrek beste lan mota batzuk ekarri ditu, lan prekario batzuk: estazionalagoak, soldata duinik gabekoak eta ez industrialak. Etxebizitzaren prezio altuak ere gehitu behar zaizkio horri, eta horrek esan nahi du zumaia-arrontzat zailagoa dela oraingo Zumaian bizitzea. Bidegurutze horretan gaude, eta bi aukera ditugu: gure herri industrialari eutsi eta soldata duinak dituen herria eraiki, edo estazionalitate batera joan, prekariedade batera, eskaparate batera. Gure erronka handiena da Zumaia izatea herri bat bizitzeko modukoa, norabide horretan ipintzea.

Zein dira zuen programaren ardatz nagusiak?

Hiru ardatz nagusi ditu: alde batetik, eraikin edo azpiegituren ingurukoak; beste alde batetik, Zumaian bizi ahal izateko hartu beharreko neurriak; eta, azkenik, Zumaian bizi duina eduki ahal izateko hartu beharrekoak.

Guretzat hirigintza arloan puntu garrantzitsua komentuko proiektua da, gure proiektu izarra da. Kulturaren inguruan mugitzen diren arlo guztiak batu nahi ditugu eraikin horretan. Sinergiak sortzeko, baina baita alde zaharrari bizia emateko ere. Horrek libre uzten dituen lokal guztiekin banaketa berri bat egin genezake. Guk programan proposamen batzuk



EH BILDU

Titularrak

- 1. Iñaki Ostolaza Esnal.
- 2. Maria Arritokieta Iribar Egaña.
- 3. Alejandro Oliden Antia.
- 4. Maider Alberdi Yeregui.
- 5. Asier Arakistain Alberdi.
- 6. Maria Ignacia Bidasoro Arozena.
- 7. Jose Maria Azkue Castillo.
- 8. Maddi Aldalur Osa.
- 9. Maria Aranzazu Gajate Telleria.
- 10. Aitor Manterola Garate.
- 11. Leire Garate Olaizola.
- 12. Iker Zulaika Loiola.
- 13. Miren Osa Galdona.
- 14. Unai Aizpurua Telleria.
- 15. Alaitz Gorostiza Egaña.
- 16. Ane Osa Barrena.
- 17. Iñaki Castor Agirrezabalaga Alkorta.

Ordezkoak

- 1. Miren Lorea Mendiola Egaña.
- 2. Julita Maria Agirretxe Galarraga.
- 3. Juan Dorronsoro Goikoetxea.

egiten ditugu, baina proposamen guztiak itxi aurretik, lokal horiek erabili behar dituzten taldeekin hitz egin behar da.

Bestetik, kirol instalazioetan aurrerapauso bat eman beharrean gaude. Duela bi legealdi, udal gobernuan geundenean, plan bat bagenuen, baina ez genituenez hauteskundeak irabazi, eten egin zen. Orain dagoen udal gobernuak erabaki zuen dena geratzea eta aztertzea. Egia esan, geratu egin dute, baina martxan ipini ez.

Udal gobernuak epe luzerako proposamen bat aurkeztu du. Etorkizun hurbilerako zer proposatzen duzue?

Duela bi hilabete aurkeztu zuten proposamen hori ez dakit amu bezala bota zuten. Hori aurrera eramateko Plan Orokorra aldatu egin behar da, hango lurrak ez dira eta Udalarenak.

Puntanoetan eraiki behar zituzten 300 etxebizitza babestuen proiektua – horietatik 100 alokairuan – atzera bota eta kolpetik aberasteko proiektu baten bila doaz. Etxebizitza libreak

eraiki, bost-zortzi pisuko etxebizitzak, alkatearen hitzetan, aurkezpenean esan zuen bezala, “gu babestuen alde gaude, baina hau finantzatzeko dirua behar da; beraz, ahalik eta gehien eta garestien saldu behar da”. Badirudi bere garaian frontoiarekin ez zutela ikasi, nahiko sufritu dugu horrekin. Guri tokatu zitzaigun horri buelta ematea, eta berriz ere horra itzultzea erantzukizunik ez izatea iruditzen zait.

Lehendabizikoa da beste kantxa bat egitea. Badirudi bideratuta dagoela; guk, behintzat, bideratuta utzi genuen duela bi legealdi, baina oraingo gobernuak geratu egin zuten. Frontoiaren ondoan joango da kantxa bat, ez osorik estalita, beste erabilera batzuk ere izan ditzakeena. Guk proposatzen duguna da igerilekua handitzea, pare bat kale gehiago ateratzeko. Posible da, eta bere garaian geneukan plana zen mugimendu batzuk egitea, lokal batzuk libratzea eta horrekin epe motzean irtenbidea eman diezaiokegu horri.

Gaur egun, kiroldegia dagoen lekuan bertan gauza gehiago ere egin daitezke. Guk aurkeztu genuen plan bat: beheko aldagelak hustu, hor dauden spako guneak igerilekuko aldamenara atera, eta behekoa libre utziz gero, lokal gehiago egin daitezke. Horrez gain, futbol zelaiaren eta polikiroldegiaren arteko tarte horretan gehigarri bat egin daiteke eta horrekin asko irabazten da: gimnasio zabalak egin daitezke. Egingarriak dira, eta ez diru gehiegirekin. Hori da gure helburua.

Etxebizitzak prezio garestian daude erosteko, eta alokairuak prezio ere antzera, edo okerrago. Neurririk proposatzen duzue?

Laguntzak egon dira alokairurako. EH Bilduk proposatzen zuen baldintzetan alokairuaren prezioaren muga igotzea, Zumaian etxebizitzarik ez dagoelako 600 euroan.

Gaspe jendearen emantzipaziorako zeuden laguntza horiek, baina gure ideia laguntza hori zabaltzea da, alokairurako etxebizitzak mugimendua egon dadin.

Bestetik, bultzada handia emango liokete alokairuko merkatuari Ppuntanetako 100 etxebizitza horiek. Egia da aurreko legealdian EH Bilduren eta EAJren aldetik hori bultzatzea adostu zela. Lau urte pasa dira, gauzak dauden bezala daude, eta ustekabeen, megaproiektu fantastiko bat.

Bere momentuan ezarri genituen neurri guztiak eta kendu dituztenak ere kontuan izango ditugu: esaterako, etxebizitza hutsei IBIak gehitzea,



alokairuko merkatura ateratzeko. Alokairuko merkatura ateraz gero, IBI berdina ordaintzen da.

Gero eta zaharragoa da Zumaiaiko biztanleria. Alde horretatik zer proposatzen duzue?

Jendea autonomia den bitartean, ahalik eta denbora gehiena norberak bere etxean egitea izango litzateke aproposena. Etxebizitza zahar asko dago Zumaian, eta Udalak lagundu egin behar du: igogailuak behar dituzten etxeetan jartzen, egokitzapenak behar dituztenei laguntzen, eta igogailua sartzen ez den tokian aulkiak igotzeko beharrezko lanak egiten.

Laburrean

- **Izen-abizenak:** Iñaki Ostolaza Esnal. Zumaia, 1969.
- **Leku bat munduan:** Kamineroetatik Zumaiaarako jaitsiera.
- **Janari eta edari bat:** Arroza eta zerbeza.
- **Liburu bat:** Milan Kunderaren *La insoportable levedad del ser*.
- **Pelikula bat:** Alan Parkeren *El expreso de medianoche*.
- **Musikari bat:** Evaristo Páramos.
- **Politikan noiz arte:** Hil arte.
- **Hitz gutxitan, beste alkategaiak nola definituko zenituzke:** Oier Kortza: ikasi behar du arerioak ez direla etsaiak. Patricia Camacho: Zumaian ondo integratutako pertsona, politikoki ezezaguna. Arritxu Maraño: alderdiaren mugak elkarlana oztopatzen dio.

Bizitzeko baldintza duinei dagokienez, aldarrikatzen dugu pentsiodunek 1.080 euroko soldata minimoa eduki behar dutela. Eskumena Espainiako Gobernuarena da, baina eskumen subsidiarioa eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari. Parlamentura eraman genuen proposamenari ezezkoa eman zioten EAJk eta PSE-EEk, baina gure helburua da hori sistema propio batean bermatzea.

Azterketa bat egitea proposatuko dugu pentsiodunekin eta jubilatuekin, eta oro har herritar guztiekin, jakiteko zein dauden muga horietatik behera. Gure helburua da inor atzean ez geratzea.

Turismo Plana onartu zen. Gaiak eztabaida sortzen du herrian. Zer proposatzen duzue?

Turismo Plana lantzeko prozesuan buru-belarri inplikatu ginen. Azterketa ondo joan zela uste dut, eta atera zen plana gure gustukoa da. Onartu zenetik sei edo zortzi hilabete joan dira, eta oraindik ez da pauso bat bera ere eman.

Eskualdeko langabezi datuak Gipuzkoako onentsuenak dira. Hala ere, badago jendea langabezian. Ze neurri hartuko dituzue?

Azken legealdian edo azken urteetan inguruko enpresa handi batzuk itxi dituzte. Zumaiaiko 400 bat lanpostu desegin dira urte gutxian. Batzuk berrezarri dira, eta beste batzuk ez; baina berrezarri diren horiek guztiak ez dira lehengo baldintzetan lanean ari.

Xey inguruan baditugu lurrak, baina hutsik dago. Ateak jotzen hasi behar dugu, jendearekin hitz egiten, enpresa promozioak egiten dituzten eragileekin kontaktuan ipintzen, Zumaiaara enpresak erakartzeko.

"Jaurlaritzarekin alokairuaren inguruko hitzarmenak egitea proposatzen dugu"

ARRITXU MARAÑON PSE-EEREN ALKATEGAIA

Arritxu Marañon Basarte da aurten ere PSE-EEren alkategaia Zumaian. Azken lau urteotan alderdi sozialistako zinegotzia izan da Zumaiaiko Udalean..

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Aurreko legealdian zinegotzi izan zara Zumaian. Zer balorazio egiten duzu? Gure alderdiari dagokionez, orokorrean, positiboa. Legealdia hasi genuenean EAJ-PNVk sei zinegotzi zituen, EH Bilduk beste sei eta guk bat. Alde horretatik, gure balorazioa positiboa da, Zumaiairi begira aritu garelako beti lanean. Alderdi jakin bati laguntzen aritu baino, sortzen ziren proiektuen arabera egin dugu lan.

Etorkizun hurbilera begira, zure ustez, zein dira Zumaiaik dituen erronka nagusiak?

Legealdi hasieratik buru-belarri aritu gara San Joseko igogailuaren alde lanean. Errealitatea bihurtu den arte ez gara gelditu. San Josen bertan behar-beharrezkoa ikusten dugu irisgarritasuna hobetzeko lanekin jarraitzea; goiko blokeetan jende asko bizi da eta irisgarritasun arazo handiak dituzte. Horiei dagokionez, gure lana orain

artekoaren jarraipena izango da. Herriko beste puntu batean ere arazoak dituzte, Estazioan, hain zuzen ere. Estazioan ez da zentimo bat inbertitu azken 30 urteotan. Baldintza penagarrian bizi direla esango nuke, are gehiago beste herri guztia nola dagoen ikusita. Estazioa auzoarekin zer egin jakiteko, eta XXI. mendera ekartzeko, beharrezkoa ikusten dugu serio aztertzea.

Hauteskundeetara begira, zein dira zuen proposamenak?

Hirigintza aldetik, aurrez aipatutako bi auzoetan, Estazioan eta San Josen, lanean jarraitzea. Legealdi honetan lortu da estazio zaharra erostea. Eraikin horretan Zumaiaiko Industria ondarearen Ikerketa Zentroa jartzea proposatzen dugu. Industria ondare aldetik, Zumaia oso aberatsa da. Historia horri daukan garrantzia ematea dago zentro honen bidez. Etorkizunera begira, Zumaiairen garapen iraunkorra sustatu behar da



PSE-EE

Titularrak

- 1. Maria Arritokieta (Arritxu) Marañon Basarte.
- 2. Maria Concepcion Blanch Ruiz.
- 3. Miguel Maestro Insausti.
- 4. Felipe Gutierrez Servan.
- 5. Catalina Galiano Garrido.
- 6. Maria Esperanza Eguiguren Romero.
- 7. Emiliano Cabañas Gonzalez.
- 8. Ana Maria Ancin Ibarburu.
- 9. Miguel Maria Martija Ochoa De Zuazola.
- 10. Baltasar Calderon Tena.
- 11. Juan Carlos Martínez De Diego.
- 12. Maria Dolores Bengoechea Azurmedia.
- 13. Veronica Mayora Gomez.
- 14. Maria Nieves Ocariz Arrizabalaga.
- 15. Enrique Rubio Mendez.
- 16. Irma Jauregui Atondo.
- 17. Jose Luis Elosua Sanchez.

Ordezkoak

- Hautagairik gabe.

turismoan oinarrituta. Hemen aukera ezin hobe dugu. Turismoarekin lotuta, bertako produktuak garatzeko plan bat prestatu behar dugu, inguruko herriek ez duten gauzetan espezializa dadin.

Herriko arazoetako bat etxebizitzarena da. Etxebizitza gutxi dago eta oso garestiak dira. Zer planteatzen duzue gai honen inguruan?

Etxebizitzen inguruan norbait hitz egiteko gai bada, sozialistak gara. Iñaki Arriolak zuzentzen duen sailetik Etxebizitza Legea onartu zen. Horri dagokionez, Torreagako garapena dago, eta oso positiboa da. Bestalde, legegaldi honetan alokairuaren politika saiakera bat egin da, baina ez da oso ondo aterata. Jaurilaritzarekin alokairuaren inguruko hitzarmenak egitea proposatzen dugu, hemendik aurrera posible izango delako. Gero, etxebizitza hutsak ere badaude herrian; modu positiboan egin behar da lan, eta etxebizitza hutsen jabeen pizgarriak

eskaini behar zaizkie etxebizitza horiek merkatura ateratzeko. Beste herri batzuetan hasi dira mugitzen, eta Zumaiak ez du zertan kanpoan geratu.

Kulturak eta ekipamenduek bat eginda, Komentuaren gaia dugu. Eraikin honetarako proposamenik ba al duzue?

Moilaberriko estazio zaharra industria ondarearen zentro bihurtzea proposatu genuenean, Udal Gobernutik esan ziguten flyscharen interpretazio zentroa hara eramango zutela. Legegaldi honetarako programan jada jasotzen genuen komentua eraberritzearen beharra. Komentuak neurri handiak ditu, leku desiragarrian dago, eta galdetzen dut: zergatik ez jarri hor flyscharen interpretazio zentroa? Leku aproposa da. Norbaitek galde dezake zer egingo dugun erromesekin. Behin-behineko neurri bezala hartu zen aterpetxea Komentuan jartzea. Zergatik ez aterpetxea Algorrira eraman? Buelta asko eman dizkiogu ideia honi, ez da tontakeria, eta zentzu guztia izango luke.

Gero eta gizarte zaharragoa dugu, eta gero eta behar handiagoekin.

Gipuzkoa Europar Batasuneko leku zahartuenetako bat da. Urte asko bizitzeaz gain, jaiotze tasa baxuenetako bat du. Orain arte egoitzak sortzera bideratu dira esfortzuak, eta horrek berebiziko garrantzia du. Baina zahartze aktiboko politikak sustatu behar dira, 55 edo 60 urtetik gorako biztanleria aktiboa izan dadin. Hori da programan jasotzen duguna. Bestetik, belaunaldien arteko harremanak sustatzea ere jasotzen dugu. Frantzia funtzionatzen duen politika da.

Gizarte gaiekin jarraituta, pobreziatik atera ezin duen jendea ere hor dugu.

Urte jakin bati dagokion hitza aukeratzen dute urtero Espainian, eta iazkoa aporofobia (pobreaki beldurra) izan zen. Dena hobetu daiteke, baina erremintak badaude gutxieneko bizi bermea izateko. Horien berri emateko informazio kanpainak egin beharko genituzke, zirkuitutik kanpo mugitzen den jende batek ez daki eta zer eskubide dituen edo zer laguntza jaso ditzakeen. Jende hori zulotik ateratzen laguntzeko baliabideak sortu behar ditugu, bai laguntza aldetik, baina baita formazio programak sortuz ere.

Gero eta jende gehiagok egiten du kirola, eta herriko ekipamenduak saturatuta daude. Proposamenik ba al duzue horren inguruan?

Etorkizuneko kirol hiriez hitz egin beharrean, gaur eguneko kontuez hitz egiten dugu. Saturatuta bakarrik ez, kiroldegia zaharkituta dago. Agian kiroldegi berri bat egin beharko genuke. Ondo dago frontoi eder bat edukitzea, baina jendeak benetan erabiltzen duena kiroldegia da. Bitartean erabiltzaileekin zer egin izan daiteke kontua. Inguruko herriein hitzarmenak egin daitezke.

Turismoaren alde daude batzuk, besteak kontra. Legealdi honetan turismo plan bat onartu da.

Planen legealdia izan da hau. Baina gero plan horiek gauzatu egin behar dira. Turismo jasangarriaren aldekoa naiz; Zumaiak ezin du isolatuta geratu. Zumaia harribitxi txiki bat da eta Gipuzkoako kostaldeko ezezagun handia. Zaindu behar dugun harribitxia da. Ez dago saturatuta,

Laburrean

- **Izen-abizenak:** Maria Arritokieta Maraño Basarte. Donostia, 1971.
- **Leku bat munduan:** Beire. Erriberri ondoan dagoen herri txiki bat da. Nire amaren herria da.
- **Janari bat eta edari bat:** Edaria ura, baina ez dut tranparik egingo, ardoa ere gustatzen zait. Janari bat: Gure amak egiten duen arroza txirlekin.
- **Liburu edo idazle bat:** Almudena Grandesen *Las manos en el pan*.
- **Disko edo musikari bat:** Rosalia.
- **Pelikula bat:** *El color púrpura*.
- **Politikan noiz arte:** Zuria izango nintzateke eta esan politikan denbora baterako nagoela, baina errealitatea da 48 urte beteko ditudala eta 24 urtetik nagoela erresposabilitateko postuetan. Eta badirudi beste lau urtez egongo naizela. Jaio nintzenetik nago politikan eta bizi dut.
- **Hitz gutxitan, beste alkategaiak nola definituko zenituzke:** Oier pertsona atseгина eta zuzena da. Iñaki ere pertsona zuzena da eta lan ona egin dezake udaletxean. Patricia ez dut ezagutzen.

Zarautz dagoen bezala. Industria ondarea dugu, flyscha, bertako produktuak. Gauzak ondo eramanda, modu jasangarrian landuta, etorkizun interesgarria izan dezake.

Ekonomia kontuetan, Gipuzkoako langabezi tasa txikiena da Urola Kosta eskualdean.

Egia da langabezi tasa txikiak ditugula, baina soldatak krisiaren aurreko neurrietan daude. Enplegu politika aktiboak bultzatzen jarraituko dugu, bai herri mailan, baita Aldundiarekin edota Jaurilaritzarekin elkarlanean ere.



"HIRIGINTZA ALDETIK, ESTAZIOAN ETA SAN JOSEN, LANEAN JARRAITZEA PROPOSATZEN DUGU"

"TURISMO JASANGARRIAREN ALDEKOA NAIZ; ZUMAIK EZIN DU ISOLATUTA GERATU"

"EGOITZAK SORTZERA BIDERATU DIRA ESFORTZUAK, BAINA ZAHARTZE AKTIBOKO POLITIKAK SUSTATU BEHAR DIRA"

gara manufacture

· 1989tik sukaltze altagarrietan lanean ·

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olabidea aldea 1 (Errotaberri Industrialea)
20.800. **ZARAUZ 943 13 31 09**

BERTAKO DISEINU ETA EKOIZPENA

www.garay.eus

BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
elektronika, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekin.esl.com www.ekein.esl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**

ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

goiko bodegoia

Erribera, 9 · 943-86 13 91

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943 86 09 70

DOIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ilarri

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

INPERNUPE ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

"Zumaiarrak ondo egon daitezen egin behar dugu lan"

PATRICIA CAMACHO UZINEN ALKATEGAIA

Estreinakoz aurkeztu du udal hauteskundeetan hautagaien zerrenda UZIN plataformak. Patricia Camacho zerrendaburuaren hitzetan, zumaiarrentzat lan egitea izango da beren erronka nagusia, eta ilusioz heldu diote helburuari. .

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Nola baloratzen duzu aurreko legealdia? Hobetu daitekeela iruditzen zait.

Zein dira datozen urteetan Zumaiak dituen erronkak?

Nik uste dut Zumaiako herritarren bizi kalitatea hobetzea dela erronketako bat. Gure herrian, pobrezian dagoen herritar asko daudela esango nuke. Zumaiarrak ondo egon daitezen egin behar dugu lan. Ez diot atzerritarrek ondo bizitzeko eskubiderik ez dutenik, baina zumaiarren alde askoz gehiago egin beharko genuke.

Zein dira zuen programaren ardatz nagusiak?

Zumaiarentzat eta zumaiarrentzat lan egitea da helburu nagusia. Kaleko jendea gara, eta hemengo herritarrentzat egin nahi dugu lan; gure asmoa ez da harago joatea. Egunez egun egingo dugu lan.

Asko garestitu dira etxebizitzaren prezioak, baita alokairuarenak ere. Arazo horren aurrean, zein dira zuen proposamenak?

Etxebizitzak alokairuan dituztenek jaitsi egin beharko lituzkete prezioak. Horri dagokionez, asko garestitu da Zumaia. Gazteek ezin dute

UZIN

Titularrak

- 1. Patricia Camacho Quizena.
- 2. Jon Joseba Iraola Rezola.
- 3. Abel Yeregui Sasiain.
- 4. María del Carmen Hernandez Sanchez.
- 5. Jesus María Ugalde Fernandez.
- 6. María Belen Vicente Alberdi.
- 7. María Nuria Ferrero Alvarez.
- 8. Fidel Jesus Merino Pastor.
- 9. Lourdes Zamora Rubio.
- 10. Nora Uncilla Garcia.
- 11. Maider Cuende Aizpurua.
- 12. Maodo Malick Gueye.
- 13. Manuel Muñoz Morales.
- 14. Veronica Cano Jimenez.
- 15. Ester Berzosa Rubi.
- 16. Miguel Angel Gil Ruiz.
- 17. Jose Antonio Perez Garcia.

Ordezkoak

- Hautagairik gabe.



etxerik erosi ere egin; hain justu, herritik kanpora doaz bizitzera asko eta asko. Arroara, Zestoara...

Komentua orain bospasei urte pasa zen Udalarena izatera, baina oraindik osatu gabe jarraitzen du. Kontuan hartuta alde zaharraren erdian dagoela, eta haren berpiztean zerikusia izan dezakeela, zer proposatzen duzue?

Hotel bat egiteko konponduko nuke, probetxu handiagoa ateratzeko. Erromesentzako aterpetxea ere izan daiteke aukera bat, baina baldintza onetan. Eraikina osorik konpondu behar da, bestela erori egingo da.

-Gero eta zaharragoa da Zumaiaiko biztanleria. Alde horretatik, zer proposatzen duzue?

Lan asko egin behar da esparru horretan; batik bat, mendeko pertsonentzat. Zer gertatzen da, bestela, jende horrekin? Jende horrentzat eskuragarriagoak izan behar dira gauzak.

Gero eta herritar gehiagok egiten du kirola, baina, agian, kirol ekipamenduak txiki geratu dira. Proposamen bat aurkeztu zuen udal gobernua, epe luzean garatzeko. Etorkizun hurbilerako zer proposatzen duzue?

Kiroldegia zaharra geratu zaigu. Hura bota eta beste bat egingo nuke. Konponketa batzuk egin dituzte duela gutxi, baina zaharkituta dagoela uste dut. Egin den proposamena ez zait txarra iruditzen, baina kiroldegia herritik irisgarriago utziko nuke, dagoen tokian bertan.

Eraikin zahar asko dugu Zumaian; horietako batzuk saldu egingo nituzke, eta diru horrekin kiroldegiko inbertsioa egin.

Turismo Plana onartu zen. Eztabaida sortzen duen gaia da herrian. Zer proposatzen duzue?

Turismo Plana alderdi guztiek adostu zuten bere garaian, hor ez dago zer esanik. Hala ere, turismoari dagokionez, Algorrin eta Geoparkean sarrera mugatua jarriko nuke.

Eskualdeko langabezi datuak Gipuzkoako onentsuenak dira. Hala ere, badago jendea langabezian. Zer neurri hartuko dituzue?

Lanpostuak sortzeko egingo dugu lan; betiere, zumaiarrentzat lehendabizi. Lan poltsak aterako genituzke, baina, esan bezala, zumaiarrek izango lukete lehentasuna. Horixe da gure interesa



Laburrean

- **Izen-abizenak:** Patricia Camacho Quizena. 1956.
- **Munduan leku bat:** Irla bat.
- **Janari bat eta edari bat:** Txuleta eta zerbeza.
- **Liburu bat:** *Cien años de soledad*.
- **Pelikula bat:** *La vida es bella*.
- **Musikari bat:** The Beatles.
- **Politikan noiz arte:** Ez dakit.
- **Hitz gutxitan, beste alkategaiak nola definituko zenituzke:** Oier Korta: kaletik ezagutzen dut, oso gutxi. Arritxu Marañon: ez dut ezagutzen. Iñaki Ostolaza: txikitatik ezagutzen dut, jatorra iruditzen zait.

"ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN DITUZTENEK JAITSI EGIN BEHARKO LITUZKETE PREZIOAK"

"KIROLDEGIA ZAHARRA GERATU ZAIGU. HURA BOTA ETA BESTE BAT EGINGO NUKE"

PUBLIZITATEA



irienda optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako solinu
eta argiztapen alokairua
Hotz eta Irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



ORRAZTEGI ZUMAI


943-86 20 83

KABI TABERNA




Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZThrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malauro

CROISSANTERIA



Marina

pizzak
hanburgesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Uroia plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea - tel. 943-86 16 91



LIDEN

eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652 / 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA
KARROZERIAK**

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industriagunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



**OSA
BERNIZATUAK**

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 · tel. 943-86 14 12 · 686 36 41 49

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

ANDONI IZAGA



Gauza asko aldatu behar direla uste dut, baina azkenaldian nire inguruan askotan entzun dudana ardura etxebizitzaren gainekoa da. Alkate berriari eskatuko nioke, faborez, arazo honi konponbide eraginkor bat bilatzeko.

Gaur egun, hainbat arrazoiengatik (etxebizitzaren salmenta prezio altua, eskaintza urria, lan egonkortasun eza...) ohikoa da jendeak alokairuan bizitzeko

erabakia hartzea, baina Zumaian arazo horiek eta turismoa direla medio, ia etxebizitzarik ez dago alokairuan. Seguraski ehunka etxebizitza huts egongo dira Zumaian, eta modu batera edo

bestera etxebizitza horiek alokatzera bultzatu edo lagundu beharko litzateke.

Alokairu bekak ere atera ziren, baina beka horien oinarriak uste dut ez zeudela guztiz ondo ezarrita. Talde oso mugatu batek izango du laguntza horiek jasotzeko aukera, eta seguru nago alokairuaren gastuak ordaintzeko benetako beharra duen jende gehiago badagoela Zumaian.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

ARRITXU BIDASORO



Uste dut aparkaleku gehiago behar direla. Biñeta ordaintzen dugu, baina gero ez dago aparkalekurik, eta derrigor garajeetan sartu behar ditugu kotxeak. Zertarako ordaintzen dugu biñeta hori? Nik uste denbora baterako bada ere izan beharko genukeela lekua kotxeak uzteko.

Nik uste lokalak izango direla herrian, baina oraintxe bertan herriko zaharrei omenaldi bat egin behar diegu, eta ez dakigu non egin. Ez dago toki berezirik, ez helduentzat, ezta umeentzat ere. Halako leku bat

izatea aproposa ikusten dut. Hor dugu Odietako frontoia. Hori ez dago estalita. Zergatik ez dute estaltzen? Plazan karpak jartzen dituzte, eta horretarako dirutza ordaintzen da. Ez al da hobe behingoz frontoia estaltzea? Betirako

izango litzateke. Umeentzat, gazteentzat, helduentzat eta denentzat izango litzateke egokia. Ekitaldi berezi bat egiten denean, hor egongo da estalpe hori.

Hurbiltasuna ere eskatzen diot Udalari; herritarrengandik hurbilago egon behar du. Gero, kaleak prestatu dituzte gurpildun aulkientzako eta. Baina herrian koska asko daude, herria ez dago oraindik prestatuta, eta jarleku horiek ibiltzen diren zaharrak oso gaizki ibiltzen dira. Hori dena begiratu behar da.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

IBON MANTEROLA

Hasteko, hona hemen oinarri-oinarrizko eskaera bat: elkarlan zintzoa egitea herrigintzan diharduten taldeekin edota parte hartze dinamiketara hurbiltzen diren herritarrekin. Herri bat garatuko bada, herrigintza instituzionala eta soziala, biak behar dira, eta elkarlanean gainera.

Beste alde batetik, herriko musika hezkuntzaren oinarriak birplanteatzea eskatuko nieke alkate eta udal gobernu berriari. Musika Patronatua berriro martxan jartzea proposatuko nuke, Musika,



Dantza eta Antzerki Eskola eraberritzeko, eta ondorioz, herriko musika-dantza-antzerki taldeak indartzen edota sortzen saiatzeko, modu planifikatu eta sistematiko

batean. Luzerako egitasmoa da, baina azken hamarkadetako zikloa itxi eta beste bat ireki beharra dago, lehenbailehen.

Azkenik, gustatuko litzaidake estrategia iraunkor bat martxan jarriko balitz euskara erabiltzearen balioa indartzeko, batez ere herritar helduei zuzenduta. Honi lotuta, proposatuko nuke turistei erakustea nola ari garen lortzen herrian euskara asko erabiltzea, hori delako gure herria oso berezi egiten duen ondare sozial eta kulturala.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

NEREA GARCIA

Lehenbizi, pazientzia izatea eta elkar entzutea garrantzitsua dela iruditzen zait. Herrigunetik urrun bizi diren herritarrekin hitz egitea ere eskatuko nioke alkate berriari, Estazio auzokoekin, adibidez. Alkateari eskatzen diot jendearekin gehiago egotea, elkar



ezagutzea eta hitz egitea. Hori beharrezkoa da.

Bestalde, ama bezala, uste dut umeentzako aterpeak eta jolastokiak behar direla.

Eskatu, eskatzen dira, baina kasu gutxi egiten ari zaiela esango nuke.

Gero, taberna batean lan egiten dut, eta tabernei erraztasunak ematea nahiko nuke, terrazak, eguzkitakoak, haize babesak eta, neguan, berogailuak jartzeko.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

PELLO ETXABE



Alkate berriari gardentasuna eskatzen diot. Gardentasuna harremanetan, kudeaketan eta baliabideen erabilerak erabakitzeke ordutan.

Beharrak ere sumatzen ditut herrian. Etxebizitzen garestitzeari galga jarri beharko

litzaioke. Beharrezkoa ikusten dut, baita ere, turismoaren abantailen edo onuren eta desabantailen edo arazoaren arteko oreka zaintzea. Alde horretatik, uste dut kulturarekin

lotutako turismoa indartu beharko litzatekela.

Amaitzeko, beharrezkoa ikusten dut herrian dauden hainbat eraikinen erabilera erabakitzea ere: Komentua, Moilaberriko tren geltoki zaharra, etab.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?

UNAI GIJARRO



Nik, oikiar bezala, alkate berriari Oikiako frontoi "estalia" ixtea eskatuko nioke, eguraldi txarrarekin alboetatik eta atzealdetik euria eta haizea barruraino sartzen direlako, eta ez delako erabiltzeko moduan egoten....

Bestetik, Oikia eta Zumaia lotuko lituzkeen bidegorria egitea ere oso beharrezkotzat jotzen dut, bizikletan bi guneen

arteko joan-etorria errepideko arriskurik gabe edonork egiteko aukera izango lukeelako, baita Joxe Mari Korta industriguneko langileek ere. Kutsadura gabeko

mugikortasuna eta kirola sustatu behar dira.

Plazako iturriaren isurbidea, saneamendua... Gauza asko daude egiteko.

Bukatzeko, Udalari eskatuko nioke herriko lanak herriko gremioek egin ditzatela kanpoko gremioak ekartzen ibili gabe, eta egin dezala ahalegin osoa herri euskalduna izan dadin! ■■■

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Itzurun taberna: Luisa Etxeberria



Onura: Ivan Egaña eta Bakarne Alberdi



Ezpadak diskoa: Luis Unanue, Haize Galarraga eta Jon Imaz



Zelai talasoterapia: Iosu Mancisidor

MAIATZAK 6

Itzurun taberna: lau lagunentzako jatordua.

MAIATZAK 13

On Gourmet: lau lagunentzako pizza handia.

MAIATZAK 20

Zelai talasoterapian zirkuitua bi lagunentzat.

MAIATZAK 27

On Gourmet: lau lagunentzako pizza handia.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hilero.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus


Telefonoz: 943-86 15 45



Hau da Festa!

Ui, ui, ui, hori da kuxidadea! Pelloziri urtebetetze-festa ospatzen ari da etxean, baina gonbidatuak ez dabilta oso txukun... Anabasa horretan zazpi ordulari aurkitu behar dituzu. Eta hori egin ondoren, margotu ezazu irudia zure gustura, batere kolorerik ez du-eta.

Sudokua



Osa ezazu sudokua, URTEAK hitza osatzen duten hizkiak (U, R, T, E, A eta K) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Zortzikoa

Aurki itzazu bi irudien artean dauden zortzi aldeak.



Marratz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



Zein da patinatzaile xeibre honen itzal zuzena?

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

#EMAN BIDEA ZUMAIARI



Orain 4 urte, ziaboga eman nahi genuen eta zumaiarrek bere konfiantza jarri zuten gugan. 4 urte hauetan gogor aritu gara horretarako lanean eta Zumaia norabide zuzenean kokatzea lortu dugu.

Orain Zumaiaren etorkizuna bermatzeko arraunean jarraitu nahi dugu eta horretarako talde sendoa osatu dugu. Ilusioz, gogoz, proiektu askorekin eta lanerako prest gaude. Berriz ere zumaiarren konfiantza jaso eta proiektu horiekin Zumaiari etorkizunerako bidea eman nahi diogu.

Egin arraun gurekin Zumaiaren etorkizunerantz. Arraun Zumaia!



ARRAUN ZUMAIA

ZUMAIAREKIKO GURE KONPROMISOAK

- # GIZARTE ZERBITZUETAN INBERTSIOAK EGINEZ, ZUMAIARREN ONGIZATEA BERMATZEN JARRAITUKO DUGU
- # SAIL BERRIA SORTUKO DUGU UDALAN EKONOMIA ETA ENPLEGU SUSTAPENERAKO
- # ERKIBE AURREKO ORUBEA BALIATUZ, ERABILERA ANITZEKO GUNE ESTALIA SORTUKO DUGU, AISIALDIRAKO ETA AZOKARAKO
- # KIROL INSTALAZIOAK HOBETZEN JARRAITUKO DUGU ETA BALENDIÑE AZTERKETA ABIAPUNTU HARTUTA ETORKIZUNEO ERRONKEI AURRE EGINGO DIEGU
- # UDAL ERAIKINEN AZTERKETA EGINGO DUGU, BEHAR BERRIEI ERANTZUTEKO
- # ZUMAIAKO AUZOAK ERABERRITZEN JARRAITUKO DUGU
- # IGOGAILU BERRIAK EGITEN JARRAITUKO DUGU IRISGARRITASUNA HOBETZEKO
- # OIKIA AUZOA ERDIGUNEAREKIN LOTZEKO BIDEGORRIA EGITEA SUSTATUKO DUGU
- # LURRAZPIKO APARKALEKUA SUSTATUKO DUGU GERNIKA PARKEAREN AZPIAN
- # TURISMO BULEGOA ETA INTERPRETAZIOA ZENTROAREN OSAGARRIA ESTAZIO ZAHARREAN KOKATUKO DITUGU, ZUMAIA BALIOAN JARTZEKO
- # GAURKO HEZKUNTZA BIHARKO ETORKIZUNA DELAKO, HEZKUNTZAN INBERTSIOAK EGIN ETA SUSTATZEN JARRAITUKO DUGU
- # EMAKUMEEN ETXEA EGINGO DUGU, BEHAR BEZALA IKUSARAZTEKO MODUKO KOKALEKUAN

Ikasi heriotzarekin bizitzen

DOLUA

**IZAR ARREGI**

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Maite dugun pertsona bat hiltzen denean dolu prozesu sakon bat pasa behar izaten dugu. Galera handia da, min handia eragiten digu eta egokitu eta krisia gainditzeko denbora behar izaten dugu. Heriotzak eragindako galera baten aurrean nola jokatu behar den aztertuko dugu artikulu honetan.

Abiapuntu modura, garbi izan behar dugu egokitze prozesu bat dela, ezin dela egun batetik bestera gainditu. Lanketa bat egin behar da, gaiaz hitz egin behar da, eta hainbat fase gainditu behar dira. Baina askotan kontrako bidea hartzen dugu, ez dugu gaiaz hitz egiten, ez ditugu gure sentimenduak jendaurrean agertu nahi. Heriotzaren gaia tabu da oraindik gure gizartean, gezurra badirudi ere. Min hori guztia barruan gordetzea eta kanpora begira gogor eta tinko mantentzea, ohiko joera da gure gizartean. "Gertatu dena gertatu da eta zer egingo diogu ba, aurrera segi beharko". Ez dut triste sentitu behar, ez dut gertatutakoaz akordatu behar, segituan lanean hasiko naiz, kirola egingo dut... Buruak badaki zer gertatu den, baina ez dugu barneratu nahi. Modu

horretara ez dago dolu gainditzerik.

Gure burua engainatu nahi dugu. "Hileta pasa eta kitto". Baina ez. Inguru guztia bere egunerokotasunera bueltatzen denean, orduan dator okerre. Hildakoa falta zaizu, bizitza zaildu egin zaizu, harremanak aldatu egin dira, seme-alabekin landu behar duzu galera... Lehen hiruzpalau hilabeteak pasatakoan dator gogorre.

Nola gainditu?

Aurrea onartu behar da zerbait larria gertatu dela. Ukatzeak ez du zentzurik, ez digu lagunduko. Galera ez dut barneratuko negarrik egin gabe eta tristurarik pasa gabe. Eta ez ezkutatu zure tristura. Etxekoek, seme-alabek, triste ikustea ez da txarra. Hitz egin beraiekin eta ez esan gezurrik. Ona da ni negarrez ikustea maite dudana pertsona hori hil egin delako. Beraz, aurrea onartu zer gertatu den, eta azaldu barnean daukazun sentipenak, onartzen dituzunak eta onartzen ez dituzunak.

IRISTEN DA EGUN BAT, AKASO EGUN OSOAN EZ ZARENA AKORDATU HILDAKOAREKIN

Gero, pixkanaka, bizitza berrira egokitu beharra dago. Gaitasun berriak ikasten joan behar da, eta zeregin eta ardura berriak onartu. Lehen bi urteetan egiten da egokitzapen prozesu hori. Eguneroko gauza txikienetara ere ohitu behar da: nik arduratu behar dut arropak garbitzeaz, edo kotxea gidatzen ikasi behar dut, edo ama orain nik zaindu beharko dut...

Eta behin bizimodu berrira egokitu garenean, azken pausoa dator, erabakitzeak unea iristen da: bizimodu hotz eta lehor honekin jarraitu nahi dut? Ni betirako triste bizitzea ez al da hilda dagoen hori nolabait bizirik mantentzeko estrategia bat? Eta iristen da egun bat, akaso egun osoan ez zarena akordatu hildakoarekin. Eta une hori zaila egiten da. Hor erabaki behar da: ez akordatzeak ez du esan nahi nirekin ez dagoenik, eta nire bizitzarekin aurrera segitzea erabaki dut. Bestela, hildakoarekin itzaltzea da alternatiba. Hori da ondo burututako doluaren amaiera: oroitzapen eskertua eta bizitzen jarraitzea.

Hildakoak hil zirela onartzen duzunean, negar egiteari utziko diozu eta oroitzapenean berreskuratuko dituzu elkarrekin bizitako pozak betirako lagun zaitzan. Ez zaitez zure hildakoekin hil. ■



Zurekin **ZUMAIA** gara



Maddi Aldalur • Joanito Dorronsoro • Asier Arakistain • Leire Garate • Marina Bidasoro • Lorea Mendiola • Alex Oliden • Iker Zulaika • Iñaki Ostolaza • Miren Osa • Arritxu Iribar • Alaitz Gorostiza • Maider Alberdi • Ane Osa • Jose Maria Azkue • Iñaki Arrizabalaga • Arantxa Gajate • Juli Agirretxe • Aitor Manterola • Unai Aizpurua

1

Mojaxarren komentuan musika, dantza eta antzerki eskola berria egingo dugu, areto eta kafetegiarekin

2

Torreagako etxebizitza babestuez gain Puntanuetan babestutako promozio berri bat jarriko dugu martxan

3

Ubillosen Coworking zentrua jarriko dugu, enpresa ideiak dituzten zumaiarrek hasteko gune bat izateko

ehbildu

Depresioa I



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Zer da depresioa?

- Gaixotasun mental honek gure ohiko gaitasunekin eta energiarekin funtzionatzen galarazten digu, eta larriki eragin diezaioke gure familia, lan eta gizarte bizitzari.
- Ohiko patologia da: gure artean, 10 pertsonatetik batek depresio episodio bat izango du bere bizitzan zehar.
- Edozein pertsonak paira dezake: adinekoak, gazteak, gizonezkoak zein emakumezkoak; izaera, jatorria edo egoera sozioekonomikoa edozein dela ere.
- Garrantzitsua da jakitea ez dela beti agertzen arazoak, zailtasunak edo kezka zehatzak dituzten pertsonengan; ageriko eragilerik gabe ere azal daiteke.
- Iraupena aldakorra da, eta zenbait astetan edo urtetan ere luza daiteke. Oro har, esan daiteke depresioa duten gehienak hobeto sentitzen direla 4-6 hilabete igarota. Pertsona batzuek sintoma iraunkorragoak izaten dituzte. Depresioak 2 urte edo gehiago irauten badu, depresio kronikoa esaten zaio.
- Baditugu tratamendu eraginkorrak: baliteke medikazioa (antidepresiboak) hilabete batzuetan zehar hartu behar izatea edo terapia psikologikoak egitea.

Autolaguntza teknikak ere badaude, larritasun txikiagoko depresio kasuetarako. Kasu guztietan, osasun mentalerako osasungarria den bizimodua egitea gomendatzen da.

- Tratamendu eraginkorrak egon badaude, baina depresioa dutenen % 40k ez dute medikuarekin kontsultatzen, baloratuak izan eta tratamendua jasoko duten beldur direlako.
- Depresioa ez da nahasi behar "TRISTURA NORMALA"-rekin: normala da noizean behin nolabaiteko tristura edo kezka sentitzea, arazoren batengatik edo ageriko arrazoirik gabe, baina tristura "normala" arina eta iragankorra da, eta ez dio larriki eragiten pertsonon jarduerari. Horregatik, kasu horretan ez da tratamendu medikorik behar, baina bai ingurukoen laguntza eta jokabide osasungarriak izatea.

"Depresio nagusia", depresiorik ohikoena

Pertsona batek depresio nagusia duela esan ahal izateko, beharrezkoa da sintoma batzuk agertzea, hala nola:

- Emozioak: tristura sakona, negarra, suminkortasuna edo egoera ezberdinak disfrutatzeko ezintasuna.
- Pentsamenduak: ezkortasuna, autoestimu baxua, errudun sentitzea, memoria eta atentzio arazoak.
- Jokabidea: isolamendua, erantzukizunren aurrean

ardurarik ez, eta eginkizunak egiteko gogorik ez izatea.

- Beste batzuk: elikatze edo lo ohituren aldaketak, energia galera...

Sintomekin batera, aldatuta egon behar du eguneroko funtzionamenduak; hau da, ezgauza sentitu behar du ohiko zereginak betetzeko (adibidez, zailtasunak ditu lanean normaltasunez jarduteko, besteekin harremanak izateko edo ohiko zaletasun edo hobbyetan aritzeko...). Aipatutako sintoma eta zailtasunek 2 astez, gutxienez, iraun behar dute.

Nola tratatzen da depresioa?

Lehenago aipatu bezala, depresioari aurre egiteko tratamendu eraginkorrak ditugu, gaixotasun horrek sortzen duen sufrimendua gutxitzen lagundu eta kaltetutako gaitasunak berreskuratzea ahalbidetzen dutenak. Tratamendua goiz hasiz gero, handiagoa da hobeto sendatzeko aukera. Tratamendurik gabe, errazagoa da depresioak okerrera egitea edo kroniko bihurtzea.

Frogatuta dago tratamendu batzuk benetan eraginkorrak direla depresioaren aurka: batez ere, farmako bidezko terapia, tratamendu psikologikoa (psikoterapia) edo autolaguntza teknikak. Sendagileak erabakiko du kasu bakoitza aztertuta zein den egokiena. ■■■

PUBLIZITATEA



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbi.kirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indushtingunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**
Julio Beabide Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezaretza, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
Jatetxea

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kodilloak)
Saltxitxak, oilaskoak...
Garagardokak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xanti
ALTZARIAK

Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urrutia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com



BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia



Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

BALEIKEK
25 urte

zatoz gurekin ospatzera





Zumaiko Udala

ADINEKO PERTSONEN GIZARTE BEHARREN INGURUKO IKERKETAREN EMAITZEN AURKEZPENA

Zumaiko Gizarte Zerbitzuen Sailak udalerriko adineko pertsonen gizarte beharren inguruko ikerketa bat egin du. 75 urtetik gorako adinekoen premiei buruzko ezagutza zehatza lortzea ezinbestekoa da behar horien asebetetze-maila egokia eta eraginkorra bermatzeko.

Ateratako ondorioak partekatzeko aurkezpen-ekitaldia antolatu du Udalak eta zumaia guztiak bertara gonbidatzen ditu.



DATA Maiatzak 8, asteazkena
LEKUA Alondegia kultur etxea
ORDUA 18:30



ORDAINDU
3 HILABETEAN
INTERESIK GABE

Konfiantza eta gertutasuna ematen dugulako
ZUMAIAN BIZI, ZUMAIAN EROSI



KULTURA

Gara: garenak garelako

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Egin egunkaria 1998. urtean itxi zuten Baltasar Garzon epailearen aginduz. 21 urte geroago, bidegabekeria haren ondorioak beste egunkari batek pairatzen ditu: *Eginek* zituen 3 milioi euroko zorrak *Gara* egunkariari leporatu dizkiote. Zorrak ordaintzen laguntzeko eta, bide batez, proiektua indartzeko, harpidetza kanpaina jarri dute martxan. Horren berri emango dute maiatzaren 17an Alondegian egingo den hitzaldian.

20 urte baino gehiago dituen bidegabekeria baten aurrean gaudela uste du Andoni Etxanizek, Zumaian harpidetza kanpaina hau aurrera eramateaz arduratzen ari den lagunak. “Itxiera hori bidegabekeriatzat jo zuen 2009an Auzitegi Gorenak, eta orain itxiera horretatik sortutako zorra *Garari* leporatu diote. *Eginek* zituen ondasunak, ordea, ez dizkiete *Garari* eman. *Egin* legez kanpo itxi zuten eta orain, legez kanpoko itxiera hartatik eratorritako zorrarekin, *Gara* itxi nahi dute”, dio Etxanizek. “Herriatik sortutako komunikabide hau, gure ekosistema komunikatiboan behar beharrezkoa den hedabide hau, berriro ezbaian jarri dute”, azpimarratu du Etxanizek.

Zorra estaltzen laguntzeko, harpidetza kanpaina jarri du *Garak* martxan. “Helburua 10.000 harpidetza egitea da, eta



erantzuna ona izaten ari da. Jada 4.000 harpidedun baino gehiago lortu dira”. Kopuru horietara heltzeko Zumaian 60 bat harpidetza izatea aurreikusten dute kanpainaren antolatzaileek. “Hurbil samar gaude, dagoeneko 50 bat harpidedun daude Zumaian. Helburutik hurbil gaude, baina harpidedun gehiago izateari ez diogu muzin egingo proiektua indartu nahi badugu, behintzat”.

Harpidetza kanpaina horri herri mailan bultzada emateko, maiatzaren 14an hitzaldia egingo da Alondegian. Hizlaria oraindik zehaztu gabeko *Garako* kazetari bat izango dela azaldu du Etxanizek. “Gaur egungo egoerara nola heldu garen azalduko du. Izango da, noski, harpidetzak egiteko aukera ere”.

Rock jaialdi bat ere antolatu dute egunkari honi laguntzeko. Berri Txarrak, Esne Beltza, Gatibu edota Huntza taldeek

hartuko dute parte. Jaialdia ekainaren 9an egingo da Donostian. Printzipioz, Donostiako Belodromoan zen egitekoa, baina sarrerak 20 minutuan ahitu ziren, eta antolatzaileak Ilunbeko zezen plazara mugitu dute.

Harpidetza hauek Internet bidez ere egin daitezke www.naiz.eus webgunean, eta telefono bidez 943-22 37 09 telefonora deituta. Harpidetzen bidez lortzen den diruarekin *Gararen* proiektuari “finantza muskulua” ematen zaiola nabarmendu du Etxanizek. “Helburua ez da zorra estaltzea bakarrik. Proiektu hau aurrera begira egonkortu eta indartu nahi da. Euskarazko telebista jarri du martxan Nafarroan, irratia ere martxan jartzekoak dira, eta naiz.eus webguneari indar handia ematen ari zaio azken boladan”. Herriatik sortutako komunikabide honek herritarren babesa behar duela nabarmendu du. ■

AGENDA

DEIALDIAK

MAIATZAK 9-EKAINAK 9

Geoparkeen astea.

ERAKUSKETAK

MAIATZAK 3-12

Beti Gazte dantza taldea.

MAIATZAK 15-29

Forondako zeramika tailerra.

MAIATZA

9 OSTEGUNA

Zine forum.

Aita Marin, 22:00etan.

11 LARUNBATA

Dantzara: Maiatza dantzan .
Beheko plazan, 17:00etan. Eguraldi txarrarekin Zumaienan.

San Pedro abesbatzaren

kontzertua: *Natura.*

Forondan, 19:00etan.

12 IGANDEA

Jazz Step tailerra: Maiatza dantzan.

Torreberrin, 17:00etan.

15 ASTEAZKENA

Meditazio saioa: Gune elkartearen eskutik.

Forondan, 19:30ean.

16 OSTEGUNA

Debatea: Baleikeren eskutik.

Oxford aretoan, 00:00etan.

17 OSTIRALA

Antzerkia: *Erlauntza, Vaivén.*

Aita Marin, 22:00etan.

18 LARUNBATA

Beti Gazte eguna: Maiatza dantzan.

19 IGANDEA

Antzerkia haurrentzat: *Enaren kontuak, 2PrincesesBarbudes.*

Aita Marin, 12:00etan.

23 OSTEGUNA

Musika eskolaren dantza emanaldia.

San Juan egoitzan, 17:30ean.

Zine forum.

Aita Marin, 22:00etan.

24 OSTIRALA

Dantzazaleon eguna: Maiatza dantzan.

Torreberrin, 18:00etan.

25 LARUNBATA

Ereintza dantza taldea: *Gu*

Agustina, Maiatza dantzan.

Odietan, 19:00etan.

26 IGANDEA

Rueda cubana tailerra: Maiatza dantzan.

Torreberrin, 17:00etan.

27 ASTELEHENA

Kontzertua: Musika Eskolako kantu ikasleak.

Komentuan, 19:00etan.

30 OSTEGUNA

Kontzertua: Musika Eskolako helduak.

Beheko plazan, 19:00etan.

BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAILA
943-14 34 43
www.biyona.net ·  

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA



Kresal usaina bazterretan



UR BIREN ARTEAN

Egilea: Patxi Iturregi
Argitaratzailea: Elkar
Argitaratze urtea: 2019
Orrialdeak: 157
Generoa: Narrazioa



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Oraingo honetan Patxi Iturregi idazlearen azken lana gomendatu eta goraipatu nahiko genuke.

Laugarren liburua du esku artean duguna, eta aurreko hirurak bezala, ipuin bilduma bat da aurten plazaratu duena. Hamabi ipuinez osatua, elkarren lotura zuzenik ez baina testinguru berean kokatuak dauden hamabi narraziok osatzen dute azken lana.

Ur biren artean ipuin liburua irakurtzen dugularik, orriak pasa ahala kresal usaina zabalduko zaigu bazterretan, ez alferrik, bere lehen ipuin liburuan bezala, itsasoa eta marinelak direlako nagusi kontakizun guztietan.

Orain dela 100 urte, 1914 eta 1919 artean, munduak ordura arte ezagututako gerrarik gogorrena bizi izan zuen, Lehen

Mundu Gerra. Europako lurralde gehienak ez ezik, itsaso guztiak ere hartu zituen. Bilboko itsasontziak, bandera neutrala dutenez, ez daude ofizialki gerran, baina gatazka orokorrak ondorio nabarmenak ditu hirian, ontzioletan, barkuetan... Gerran dauden potentziek lehengaiak behar dituzte eta ondo ordaintzeko gertu daude, baita hornigai horiek etsaiarengana iristea eragozteko prest ere.

Narrazio guztietan nabarmena da aurrez egindako dokumentazio lana, sinesgarritasun osoa ematen diotelako ipuin guztiei, jakinik hamabi ipuinetatik soilik bi

**NARRAZIO GUZTIETAN
NABARMENA DA
AURREZ EGINDAKO
DOKUMENTAZIO LANA**

benetako gertaeratan oinarrituta daudela eta gainerakoak fikziozkoak direla.

Hamabi ipuin hauetan denetarik aurki dezakegu: alde bateko zein besteko espioiak, portuko eta ontzioletako langileak, kontrabando ilegalean dabiltzan merkantzia ontziak, saltzaileen larriak, langabetuen estutasunak, jauntxoen libertimenduak...

XX. mende hasierako Bilboren eta haren itsasadarraren argazki eta irakasgai bikaina eskaintzen digu lan honetan Patxi Iturregik, hain gertuko eta era berean hain urruti ditugun kontuak ezagutaraziz.

Bereziki aipatzekoa da idazlearen istorioak transmititzeko gaitasuna, hamabi kontakizun hauetan hainbat teknika zein erregistro desberdin aurki ditzakegularik, guztiak, gainera, maisuki erabiliak. ■

Musikaren lan isila...



IKER GONZALEZ COBEAGA

Gaur egun ez da batere zaila musika entzutea. Teknologia lagun, hatz baten mugimendu sinple bati esker, ehunka abesti izan ditzakegu gure poltsikoan entzungai. Eta Internetaren sareetan murgilduz, mundu guztiko musikak entzun ditzakegu. Ez dut esango hau guztia aurrerapena ez denik, baina, aldi berean, ez al diogu musikaren atzean dagoen lanari bere balioa kentzen?

Goya sarien banaketan, Rosalía abeslariak, Cor Jove de l'Orfeo Català abesbatzako kideekin batera, abesti bat eskaini zuen, ahots hutsez. Bideoa birala bihurtu zen eta zeresan handia eman zuen, baina nork hitz egin zuen abestiaren moldaketa idatzi zuen musikagileaz? Interneti esker jakin dut Bernat Vivancos izan zela; hori bai: bideoa birala izan zen, baina moldaketak egin zituen bigarren planoan geratu zen. Moldaketarik gabe, ordea, ez zen posible izango abesti hura hala eskaintzea.

Egokitu zait horrelako zenbait lan egitea, abesbatzen musikatik gertuago dauden Oskarbi edota Golden Apple Quartet bezalako taldeetatik hasi eta urrunago dauden artistengana iritsi arte (Amaia Zubiria, Mikel Markez edota Xabi Solano, kasu). *Klasikoak* bezala definitzen ditugun musika estiloek partituretan oinarritzen dute beraien lana,

han idatzita dagoena hobekien jotzen edota abesten, hain zuzen. Orduan, arraroa egiten zitzaidan ikustea goian aipatutako artista horien artean inork ez izatea bere doinuen batere partiturarik. Horren aurrean, lehen pausoa beti zen, pianoa lagun, beraiek egiten zutena *belarriz* ateratzea. Eta ez pentsa lan hori oso erraza zenik; *swing* estiloa zutelako edota artistak, bere askatasunean, nahi zuena egiten zuelako, abesti horiek bost lerroek eta konpasak finkatzen duten egiturara egokitzeak izerdiak botarazi zizkidan. Hori bai: gero grabatzeko ordua etorri zenean, artistaren batek, bere askatasun sortzailean, nahi izan zuena kantatu zuen...

Hori egindakoan iristen da niretzat lanaren zatirik politena: estilo musikal ezberdinak uztartzen saiatzearena, alegia. Ohikoa da kantautoreen artean doinu berarekin estrofa ezberdinak kantatzea; hala gertatzen da, adibidez, Mikel Markezen *Konplize ditut eta* abestian. Horregatik abestiak ez du indarrrik galtzen, indarra hitzetan dagoelako, baina

**NORK HITZ EGIN ZUEN
ABESTIAREN
MOLDAKETA IDATZI
ZUEN MUSIKAGILEAZ?**

abesbatza batek bost aldiz gauza bera egin behar badu, entzuteko neketsua suerta daiteke. Horrelakoetan beharrezkoa da irtenbide ezberdinak ematea, estiloarekin bat datozenak, baina beste zerbait gehitu dezaketenak. Ez da guztiz konparagarria, baina, pinturarekin alderatuta, lan hau beste margolari batek egindako koadroaren gainean zure koloreak jartzea bezala da. Estilo bakoitzak bere koloreak ditu, *Oh Peio Peio* abestia herrikoia da, baina Golde Apple Quartetek beti emango dio *swing* estiloa eta jazz musikaren ukituak. Abesti hori moldatzeko garaian, beharrezkoa izan zen musika herrikoia, jazz eta musika korala uztartzea. Eta, nola ez, idatzikoak abesteko edota jotzeko modukoa izan behar du, musikoek margotuko baitituzte zuk jarritako koloreak.

Azaldutakoak adibide soilak dira, baina hurrengo batean musika banda Queen jotzen edota abesbatza bat kanta ezagun bat eskaintzen ikusten baduzue, gogoratu horren atzean lan isila egongo dela. Abesti horiek originaletik atera eta beste “munduetara” eramanez izan direlako. Errazagoa da poltsikoan duguna entzutea, baina zuzenekoak beti izango du besteak ez duen xarma berezia eta hori beti eskertu eta txalotu behar da. ■

Hilezkorrak ere badoaz



JUAN LUIS ROMATET

2016ko urtarrilaren 10a beste edozein egun bezala hasi zen. Makarrak kendu gabe kafea eta tostadak prestatu nituen, eta ordenagailu aurrean eseri nintzen prentsa irakurtzeko. Ordena jakin batean irakurtzen ditut egunkari digitalak, bai bertakoak, baita kanpokoak ere. Lehena irakurri edo erreparasatu nuen, eta bigarrena zabaltzean han zegoen albiste: “David Bowie hil da”. Zur eta lur geratu nintzen, aurreko egunkariak ez zuelako gertaera horren berririk ematen. Inuzente eguna izango ote zen nonbait? Zuzenean *The Guardian* egunkari ingelesera jo nuen, eta, bai, han zegoen albiste, handi-handian.

Egonezina sentitu nuen, ezin nuen sinetsi hil zenik, ezin zen halakorik gertatu. Egun osoan egon nintzen ordenagailu aurrean Bowieren inguruko albisteak irakurtzen (lan ere egingo ote nuen?). Eta bazegoen, bai, ulertu ezin nuen beste zerbaite ere: heriotza horren aurrean nik neuk izandako erreakzioa. Betidanik gustatu izan zait haren musika –gure anaiak etxean zituen diskoak entzuten nituen nerabezaroan–, haren genioa aitortzen dut, baina ez naiz inoiz haren fan sutsua izan. Zergatik, orduan, halako egonezina eta malkoak? Hilezkorra zirudielako? Ez al gara hor ia fede kontuetan sartzen? Hiru urte igaro dira eta oraindik ez naiz gai egun horretan izan nuen jarrera arrazionalizatzeko.

Behin edo behin hitz egin dut koinatuarekin gai honi buruz, Kepa Aizpuruak martxoko iritzi artikuluan zioen bezala, zerbeza arraro batzuei tragoxkak ematen: 1960ko hamarkadatik hona musika (eta zinea, gaineratzen dut nik) aldatu zuten pertsona hauek guztiak hiltzen ikusiko ditugula, eta ez hemendik hamarkada batzuetara, urte gutxi batzuk barru, baizik: Bob Dylanek ia 80 urte ditu, eta Mick Jaggerrek, Keith Richardsek, Paul McCartneyk, Joni Mitchellek edo Neil Youngek, gutxi batzuk esatearren, 70 urteak ondo beteta dituzte. Zinera salto eginda, Spielberg, Scorsese edo Coppola ere adin tarte horretan daude jada. Lou Reed, Prince, Leonard Cohen edo Tom Petty joan dira dagoeneko, eta orain dela hilabete gutxi batzuk Mark Hollis eta Scott Walker hil ziren, agian aurrekoak bezain ezagunak ez, baina pop eta abangoardia munduan ibilbide bitxi bezain aberatsa izan duten bi musikari.

Zoritarrez edo zorionez, norberak erabaki dezala, denok igoko gara Karonen ontzira, Estigia lakua zeharkatzera; hemen ez da inor libratuko. Eta bai, aurrez aipatutako guztiak hilezkorrak izango dira, beraien lana hor geratuko delako. Baina zer nahi duzue esatea, musikazale eta zinezale bezala, gogorra ere egiten zait. Jakinda, gainera, Aznar oraindik bizirik dagoela... ■■■

**EGONEZINA SENTITU
NUEN, EZIN NUEN
SINETSI HIL ZENIK,
EZIN ZEN HALAKORIK
GERTATU**



ARDANTZABIDE
ATSEDENA

Beheko solairu berria!!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Txomin Agirre, 4 · 20750 Zumaia · 943-86 25 32
ardantzabide@gmail.com · www.ardantzabide.com ·  



Fp EUSKADI
ANBIDE HEZIKETA

IMH FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACION

HEZIKETA ZIKLOAK

Informazio saioa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 65
amaia@imh.eus

Webgune berria!
www.imh.eus




IMH FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACION

UPV EHU

INGENIARITZA GRADU DUALA

Informazio saioa: maiatzak 18
11:00etan | IMH (Elgoibar)

Baieztatzeak: 943 74 82 64
ingeniaritza.ehu@imh.eus

Webgune berria!
www.imh.eus



A black and white photograph of a school hallway with three students. A boy on the left holds a book, a girl in the middle carries a folder, and a girl on the right stands looking forward. The hallway has a modern design with large wall panels and a glass door at the end.

BATXILERGOKO ATE IREKIAK

ZATOZ ESKOLA EZAGUTZERA!

MAIATZAREN 6TIK 10ERA
AURREZ HITZORDUA
HARTUTA (943 89 92 53)

HELBIDEA: AITA MARI, 45

**AURREMATRIKULAZIOA
MAIATZAREN 2TIK 13RA**